

Berez diruri zai zaundezela  
 Euskal-festa egiñ artian,  
 zere lagun zan Bilinch maitien  
 onraz aurtengo urtian,  
 orruz dizula berak zerutik:  
 —Atoz nerekin batian,  
 orko nekiak sosegatzera  
 betiko biyok pakian...!

JOSÉ GANBOA.

---

## OROIMENA

---

Ariyo On Ramón,  
 Eta ez betiko;  
 zure izatez zekulan  
 ez gera aztuko.

JOSÉ M. ARRIETA.

---

## ON RAMON ARTOLA ETA LARRAÑAGA ZANA-RI

Arranotzarrak chito chikiya  
 garaitzen duben moduan,  
 eramaten du choriyak arto—  
 ale oriya nokuan  
 jala eraman zaitu zu ere  
 eriotz beltzak gaurkuan...!  
 artu zaitzala Jauna goi-goyan  
 betiko bere kolkuan;

¡ona izandu zeradelako  
len, ta illzeko orduan!!

Ala gerta dedilla.

JUAN IGNAZIO URANGA.

Donostiyan Abustua-ren 21-an 1906.

---

ON RAMON ARTOLA ETA LARRAÑAGA

---

Euskaldun danak penatuz utzi dituzu  
mundu triste eta penagarri ontan,  
zergatik joan zayoten maisu ona  
eta alaikirotsua ordu denetan;  
orregatik danak desio dizugu  
chit barrundik eta benetan;  
gozamen asko pasatutzia  
aingeru tartian zeruetan.

JOSÉ BERRA.

Donostiyan.

